

# TXOKO

# KUTTUNAK

TURISMO GIDA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU  
ETA BUSTURIALDEA

[2024/10]

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

**HITZA**

# auka bidaiak

CIE: 2260

Fray Martin de Murua, 29  
GERNIKA-LUMO  
94-625 74 14 · 688 68 63 45  
auka@auka.eu



[www.gernika.viajesecuador.com](http://www.gernika.viajesecuador.com)

VIAJES  
**ECUADOR**  
BIDAIAK

**Viajes ECUADOR Bidaiak**  
8 de Enero, 7 · Gernika-Lumo  
94-625 42 39 · 626 25 91 26  
gernika.ve@viajesecuador.net



**MEDITERRÁNEO VERANO 2024**  
El día de salida por País Vasco, Madrid, Murcia, Castellón, Valencia, Alicante y Barcelona. Salidas a: Barcelona, Valencia, Murcia, Alicante, Málaga, Sevilla, Lisboa, Casablanca, Tánger, Marrakech, Argón, Casablanca, Tánger, Marrakech, Argón.



## Aurkibidea

AUKA BIDAIAK (Gernika-Lumo)	2
EKUADOR BIDAIAK (Gernika-Lumo)	2
ANDRA MARI APARTAM. (Bermeo)	4
GAMENTXO (Ibarrangelu)	4
BERMEO	5
EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	6
EKOBIDEAK (Leioa)	6
EA	7
BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)	8
GAUTEGIZ ARTEAGA	9
HEMINGWAY (Sukarrieta)	10
BASONDO (Kortezubi)	11
ARROLAGUNE (Arratzu)	12
AMUNATEGI (Busturia)	12
MUXIKA, GOROZIKA ETA IBARRURI	13
VISIT URDAIBAI	14
NABARNIZ	15
EKOETXEA (Busturia)	16
MUTRIKU	17
YURRITA (Mutriku)	18
ARBE HOTELA (Mutriku)	19
ONDARROA	20
BERRIATUA	21
AZOKA (Berriatua)	22
MARKINA-XEMEIN	23
ETXEARRIA	24
ANTSOTEGI (Etxebarria)	25
ZIORTZA-BOLIBAR	26
MUNITIBAR	27
AULESTI	28
LEKEITIO	29
ISPASTER	30
MENDEXA	31
LEA IBARRA	32



Ogellako hondartza

## Esperientzia ahaztezinak

**U**dazken koloretan daude gure bazterrak. Orbelak hego haizea-  
rekin dantzan edo zaparrak bustita. Zuhaitzak gorri-hori edo  
marroi argi zein ilun. Beti eder. Lea-Artibain, Mutriku nahiz  
Busturialdean udazkena bizitzeko eta zुकutzeko leku zoraga-  
rriak topatuko dituzu. Izan ere, urtaro honen xarma bidelagun bikaina  
da bertoko esperientziez gozatzeko, eta itsasaldean zein landa ere-  
muan, egunez zein gauzez, nahi eta behar duzun hori aurkituko duzu.

Atsedena, gastronomia eskaintza zabala, abentura, ondare  
aberatsa... Askok dira proposamenak. Lea-Artibaik, Mutriku eta Bus-  
turialdeak asko daukate eskaintzeko. Hartu, probatu eta gozatu.  
Bihotza beteta itzuliko zara.

TXOKO  
KUTTUNAK  
TURISMO GIDA  
[2024/10]

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak**

Lege gordailua: **BI-2906-03 · ISSN: 2173-7118**

Helbidea: **Arretxinaga Etorb., 1 · MARKINA-XEMEIN · 94-684 44 36**

Webguneak: **www.busturialdea.hitza.eus**

**www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus**

Testuak eta publizitatea: **Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA**



Argitalpen honek  
Bizkaiko Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du.





*Bermeon*



**Apartamentu Turistikoak**  
Talakoetxea, 1 | 626 89 16 61  
[andramariapartamentuak.com](http://andramariapartamentuak.com)

*Sentraziroz betetako tokia*

**HOTEL**  
*gametxo*



Gametxo Auzoa | Ibarangelu | 94 627 77 10

# Bermeo

## Olatu-horma punta



Idurre Beotegi Mefiaka

**O**latu-horma punta du Ilaski Serrano Urkidik herriko txokorik gustukoena. «Oso ondo sentiarazten nau. Portura jaitsi eta zeharkatzea plazera da, eta puntatik ah zenbat gauza ikusten diren! Izaro, hain hurre, Laida, Mundaka, eta, jakina, herria parez pare. Niretzat sentsazio ederra da».

Ez da kontu berria. «Beti gustatu izan zait txoko hori. Umetan mila ordu sartutakoa naiz han! Ez genuen edukitzen beste zereginik: olatu-hormara joan eta pipak jaten egon bertan, elkarregaz berbertan». Urteen joan-etorriagaz, lotura hori mantendu egin du. «Bada oraindik egiten dudan gauza bat bai ala bai Bermeon nagoenean: portura joaten naiz, lagun on bategaz ahal bada, hobeto», adierazi du.

### Itsasoa aurrean denean, gozagarri

Bermeotarra izanda, eta begien bistan izanda, itsasoaz galdetzea ia derrigorra da. «Egia da itsasokoak garenok badakigula zein ederra den, eta zelan ahal zaren egon hari begira infinitu. Izan ere, beti da berdina, eta era berean, beti da desberdina. Bada gauza bat aurrean daukadanean asko gozatzen dudana, kresal usain hori ere bai». Hala eta ere, aitortzen du, itsasoaz gain beste hainbat gozagarri daudela bere bizitzan. «Itsasoa ez dut bereziki faltan botatzen, beste gauza askogaz ere atsegin har-



**Ilaski  
Serrano Urkidi**  
[Kazetaria]

**«Umetan olatu-horman  
mila ordu  
sartutakoa naiz»**

tzen dugulako. Eta mendira begira egotea ere ederra da, eta errepara begira egotea ere ederra da, baina egia da itsasoa berezia dela guretzat, eta ikusten denean eta hurre dagoenean eskertzen dela», esan du.



Arana eta Goiri  
tar Sabinen  
enparantza, z/g  
94-617 91 00  
[www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)  
[antolakuntza@bermeo.eus](mailto:antolakuntza@bermeo.eus)



Andra Maria kalea, z/g  
Gernika-Lumo (Bizkaia)  
94-625 19 30

[www.euskalsouvenirs.com](http://www.euskalsouvenirs.com)



@euskalsouvenirs

# EUSKAL SOUVENIRS

*Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.  
Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezten!*

## Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.

**Oinez edo itsasontziz, animatuko zara horiek aurkitzera?**  
Oka Ibaia estuarioaren ezkerretik eskuineraino, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitate bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldea dugu: flysch-ak, diapiroak, dúnak, harrobiak, fosilak eta arroak. Zeuk erabaki!

## Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Oraintxe bertan, aktibitate hauek Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu. Bisitan zehar, inguruneko elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinua naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. Begiratu nahi al duzu?



## EKO BIDEAK

Kontaktua:

666 85 77 61  
688 62 72 42


[ekobideak@gmail.com](mailto:ekobideak@gmail.com)

[www.ekobideak.com](http://www.ekobideak.com)



Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Geologo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdaibaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaian baso bainuen helmuga turistikorako ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.

*Geoturismoa eta  
Ingurumen  
Hezkuntza...  
hauzak eta zeozer  
gehiago!*



Asun Landa Mendibe

Presie

**B**urdinola zaharraren presa edo eatarrek deitzen dioten eran «presie» da Asun Landa Mendiberen tokirik kutxunena. «Gure bizitzaren taupadak hantxe daude, eta Eako taupadak ere bai, herriaren lehen biztanleak handik etorri baitziren», adierazi du.

Bidezidor bat hartu eta 600 metro gorago dago emari edo sustrai hori. «Errekan gora antzinako burdinolaren arrastoak daude, eta gorago, presa», deskribatu du. Hiruetaz oroitu da, hiru erreka elkartzaren diren tokia eta presaren iturburu. «Umetan, itsasertzean ezezik, presa ondoan ere jolasten ginen, kaskailuak biltzen eta. Gainera, toki hartan bereziki libre sentitzen ginen gurasoengandik. Eta nerabezaroan, disko-jogailuekin joan eta bertan egoten ginen neskatan eta mutiletan egiten, hor bueltan». Hortaz, balio berezia dauka inguruak beretzat, eta sumatzen duenez, baita beste askorentzat ere. «Gure belaunaldiko eatarrok hor egin ditugu bizitzaren bidaia inizatiko guztiak», baieztatu du Landak.

### Isiltasuna, basoaren soinuak eta usainak

Garai bateko jolaslekua bakerako baliatzen du egun. «Natura sumatzen da hor. Gordetzen du isiltasuna, basoaren soinuak eta usainak», nabarmendu du. Eta kanpoko jendeari beste bertokoei



**Asun  
Landa Mendibe**  
[Kulturjilea]

**«Gure belaunaldikook  
hor egin ditugu  
bizitzaren bidaia  
inizatiko guztiak»**

egin die urratsa haraino eramateko gonbidapena. «Eako bihotza markatzen duen erreka da, bidea Eako itsasertzean amaitzen duena. Bertoko basoan aurkituko dute bakea, gaztainondo eta urra arbolen ondoan. Azken batean, gure basoa, txikia eta ederra; eta gure ondarearen arrastoak».



**EAKO  
UDALA**

Donibane plaza, 2  
**94-627 52 27**  
faxa: 94-627 51 99  
udala@ea.eus  
www.ea.eus  
www.eaturismo.eus

# Zatoz Gernikako Bakearen Museora!

Bakeaz, Giza Eskubideetaz eta Gernikako bonbardaketaz arituko gara. Bizirik irten zirenek beraien bizipenak kontatuko dizkigute. Gaur egungo egoera ulertzeko ezinbestekoa.



**URRITIK  
MARTXORA**

Astelehenak  
eta igandeak:  
10:00-14:30


Asteartetik  
larunbatera:  
10:00-19:00

Larunbat  
arratsalde  
guztietan,  
sarrera doan.

MEMORY & ART


EL ARTE DE LA MEMORIA

2024/05/16 – 2024/12/29



XABIER ERKIZIA

MÉMOIRE ET ART



MEMORIA **ART**Ean 2024



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa  
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Foru plaza,1. Gernika-Lumo  
94 627 02 13 / [museoa@gernika-lumo.net](mailto:museoa@gernika-lumo.net)  
[www.museodelapaz.org](http://www.museodelapaz.org)



# Gautegiz Arteaga



**Itsasadarra**

Juan Felix Naberan Ozamiz

**I**tsasadarra jolastoki zuen umetan Juan Felix Naberan Ozamizek, eta orduan modura gaur egun ere bertara jotzen du denbora pasan, beste hainbat eta hainbat lagunek modura. Dio Naberenek ez dela herriko toki eder bakarra, baina aitortzen du lekuak lilura berezia daukala.

Umetako jolastokia da alkate izandakoarentzat itsasadarra, ugerrean ikasteko lekua, arraunean egitekoa. Marea goian edo behean egon paisaia erabat aldatzen da, eta bazterrak desberdin bistartzen. Nahi batera, nahi bestera, miresmena dio. Bere azalpenak dira horren erakusle. Bata bestearen atzetik izendatu ditu hango txokoak: Katxitxone, Baraiz, Sarau, Errota zaharra, Artebaltz... Izkiratan, karramarrotan edo angulatan ibiltzen ziren bere adinekoak, edo batelean arraunean, abentura bila.

## Leku aberatsa

«Erromatar garaian, errioa komunikazio bide bat zen. Guretzat, ostera, jolasteko lekua. Lupinatxoak eta plaktusa bilatzen orduak ematen genituen tokia. Gaur egungo belaunaldi gazteentzat zentzu hori galdu duen arren, leku oso aberatsa izaten jarraitzen du», adierazi du.

Hango hitzak garrantzi handikoak izan dira herriko eta eskualdeko ekonomiarentzat. «Marearen



**Juan Felix Naberan Ozamiz**  
[Alkate ohia]

**«Antzina errioa komunikazio bide zen; guretzat, ostera, jolasleku»**

eragin-eremuan kokatutako gunek ziren, Erdi Aroaz geroztik herri-lurrak izan ziren, eta hainbat baliabide ustiatzen ziren, hala nola ganadu-bazka edo ihiak biltzea».

Egun aisialdirako lekua da, baita beretzat ere, sarri joaten baita bertara piraguan ibiltzera.



## GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA



Herriko Enparantza, 1  
94-625 29 53  
udala@gautegizarteaga.eus  
www.turismogautegizarteaga.eus

HEMINGWAY KANALA HOUSE

# ZURE ZAIN GAIUZU



Mundakako  
itsasadarraren  
bihotzean



## EDERTASUNA ETA OSASUNA

Spa, sauna eta  
masaje terapia



## LORATEGIA

Lorategi zoragarria  
itsasora begira



## NATURA

Naturazaleentzat  
ihesaldia egiteko  
toki paregabea



inspiratu zaitetz

<https://casarural-kanala.com/>

[casaruralkanala@gmail.com](mailto:casaruralkanala@gmail.com)

666680801/618774398



HEMINGWAY Kanala House

Kanala Auzoa 19  
48317 Sukarrieta – Bizkaia  
(sarbidea, Gautegez-Arteagatik)



# Kortezubi



## BISITA MOTAK

**Norbanakoak:** Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu [jaio-tzak, espezie berriak...] Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

**Taldeak:** Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak [euskaraz eta gaztelaniaz]. Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri guztiak azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

**Ikasleak:** Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta [haur zein nerabeak]. Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

## ORDUTEGIAK

**Astelenetik ostiralera:**

11:00etatik 15:00etara.

**Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan:**

11:00etatik 18:00etara.

## PREZIOAK

**Norbanakoak:**

Helduak 10 euro eta umeak 6.

**Taldeak:** Bisita gidatueterako erreserba egin behar da. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, sarrera ordaindu eta gidaria dohai-nik izango da. 20 pertsonatik beherako taldeek, 35 euro ordaindu beharko dituzte gidaria eduki nahi izanez gero.



## Basondo, basafaunaren babesleku

**A**nimalia basatiek ere badute beraien etxea Euskal Herrian, eta Basondo da horietako bat. Zoologikoa izatetik urrun, bertako basafaunaren babeslekua da Basondo. Arrazoi desberdinak tarteko, bertan dauden animaliak ezin dira naturan askatasunean bizi, oreinak, otsoak, katamotza, sai arrea eta putrea, esaterako.

Animalia hauek zaindu eta sentsibilizazio lana egitea dute helburu, irabazi asmorik gabe. Animalia gehienak errekupeazio zentroetatik datozenak dira, eta gertutik ikusi eta kontaktu zuzena edukitzeko aukera dago kilometro bateko ibilbidean zehar, nahi izanez gero azalpenez lagunduta.

Faunaren aterpe izateaz gain, geologia eta botanika berezi batek inguratzen du Basondo. Euskal Herriko basoa ikusi daiteke bertan, arestiekin, esaterako. Parean, babestutako gunea dago: artadi kantauriarra. Kareharria da bertako lurra, eta horrek dolinak eta kobazuloak egotea errazten du. Horietako bat, esaterako, Basondoko ibilbidearen barruan ikusi daiteke.



## BASONDO BABESLEKUA

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi

94-625 44 36

[info@basondo.com](mailto:info@basondo.com)

[www.basondo.com](http://www.basondo.com)

# ARROLAKO OPPIDUM-AREN INTERPRETAZIO ZENTROA

ARROLAKO  
OPPIDUM-AREN  
INTERPRETAZIO  
ZENTROA

IGANDE GUZTIETAN ZABALIK  
10:00-14:00 ARRATZU  
Sarrera doan

AZAROAK  
10  
igandea

BISITA GIDATU  
BEREZIA OINEZ  
ARROLAKO  
OPPIDUM-ERA

9:00h ARRATZU

PREZIOA: 15€

AURRETIZKO ERRESERBA  
ONLINE EDO TELEFONOZ



634 243 762



## AMUNATEGI TXAKOLINA

1812 urteaz geroztik

17.000 metro  
karratutako  
mahastia  
Busturiko  
San Bartolome  
auzoan.



**JAUN ZURIA TXAKOLINA:**  
Kondairadun txakolina.  
Hori lastoa, erreflexu berdexkakin.  
Bizia sudurrean, konplexua,  
lore- eta fruta-notekin.  
Azidotasun orekatua eta  
amaiera atsegina.

• **ZUZENKO SALMENTA:**  
3 eta 6 botilako kutxetan.

Kontaktua: **685 73 73 98** (Anton)  
anton.aranburu@gmail.com



[www.amunategi.com](http://www.amunategi.com)

# Muxika, Gorozika eta Ibarruri

Arburu



Izaskun Garcia Urlezaga

**G**aitza egiten zaio Izaskun Garcia Urlezagari Muxikako leku bakar bat aukeratzeari. «Nire herria denez, dena gustatzen zait, dena ikusten dut polita», dio. Badauzka, dena dela, asetzen duten ibilbideak. Udan, esate baterako, errekarara joan ohi da, eta udaberrian San Romaneko buelta egitea du atsegin. «Baina bat aukeratzekotan, Muxikatik kanpokoentzat leku deigarri bat aukeratzeko ariketa eginda, Arburuko mendia aipatu nahi nuke», adierazi du.

## Urdaibai begi bistan

Bizkargira bidean geratzen da, eta bai San Romanetik, bai Gorozikako parkinetik igo daiteke. «Gaztetatik jo izan dut hara, pozik nagoenean zein goibel. Naturagaz konektatzen nau», esan du muxikarrak. Dio ez duela eskatzen esfortzu handiegirik, ume txikiekin arazorik gabe hel daitekeela haraino, eta bistaratzen duena sari ederra dela. «Puntu berezi bat da: Urdaibai osoa ikusten duzu. Durangaldeko mendi guztiak ere bai. Handik menditik jabetzen naiz non bizi naizen».

Eta gehiagorako gogoz dagoenak beti edukiko du Bizkargiraino joateko aukera, 565 metroko altuerakoa. Karga historiko handiko mendia da Bizkargi, 36ko gerran gudarien euste lerro esanguratsua. Bertan gatazka odoltsuak egon ziren. Ho-



**Izaskun Garcia Urlezaga**  
(Saskibaloiko jokalaria oha)

**«Gaztetatik noa Arburura; naturagaz konektatzen nau»**

regatik, urtero-urtero maiztzeko lehen igandean Bizkargi Eguna ospatzen da, eta tontorrean guda-riak omentzen dituzte. Bide batez, hango basiliza ere bisitatu daiteke, Santa Kurtzi eskainitakoa.



## MUXIKAKO UDALA

Muxika, Gorozika eta Ibaruriko herriak  
"Hiru herri udalerrri bat"

Ugarte auzoa, 1  
94-625 27 01

bulegoa@muxikakoudala.eus  
www.muxikakoudala.eus



Visit Urdaibai

© bai Nueva Europa

bisita  
gidatuak



Kultura  
Natura  
Ondarea  
Turismo Jasangarria

NUEVA  
EUROPA



[www.visiturdaibai.com](http://www.visiturdaibai.com)  
634 243 762 @ visiturdaibai

# Nabarniz

Arrola



**A**u herriren bidegurutzean dago Iñaki Murgialdairen leku kutxuna: Aulesti, Arratzu, Mendata eta Nabarniz. 537 metroko altueran, Urdaibai guztia ikusten da bertatik, baita urrunean Durangaldeko mendien silueta ere.

Antzinara jauzi egitea da Arrolara igotzea, bertan baitago Euskal Herriko kastro aspaldikoenetako bat, Kristo Aurreko IV. mendeko herri indigena gotortua, erromatarren aurrekoa eta zeltiarren bizitoki. «Bakarrik %15 dago bistaratuta, hain zuzen, kanpoko horma batzuk. Hortaz, gehiena egiteko dago, baina balio handiko eremua da», argitu du. Hamasei hektareako azalera du, eta babes-egitura handiak, hala nola harresiak, babes-hobiak eta sarbidea korridore labirintiko gisa eratua duten ate gotortuak, historiazaleen arabera, erasotzaileei alboetatik oldartzeko moduan. Inguruaren balioaz gehiago jabetu nahi izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundiaren bisita gidatuetan parte hartu ahal da.

## Eibar-Nabarniz

Mendizaleentzat ere bada ezagun Arrola, Nabarniz-Eibar mendi martxa ezagunean erreferentziatzeko puntu baita. 31 kilometroko bidea egitera animatzen direnek buzoia ere aurkituko dute, oharrak jaso eta uzteko beti-betiko sistema, eta horri ere ematen dio balioa Murgialdaik.



**Iñaki**  
**Murgialdai Arrate**  
*[Komertziala]*

**«Arrolan arazo guztiez ahazten zara, toki baketsua da eta»**

Horren denaren berririk eduki barik ere, gustuko lekua izango du bisitariak bere iritziz. «Han arazo guztiez ahazten zara, toki baketsua da eta», adierazi du, eta dio giro aproposa sortzen lagundu duela basoa lehengoratzeko hartu den bideak.



**NABARNIZKO**  
**UDALA**

Elexalde auzoa, 2  
94-625 50 77  
**Faxa:** 94-625 65 12  
udala@nabarniz.eus  
[www.nabarniz.eus](http://www.nabarniz.eus)



# Ekoetxea

## Euskadiko Ingurumen Zentroyen Sarea

Zatoz **Ekoetxea Urdaibai** zentrorra eta modu jasangariagoan bizitzen lagunduko dizuten **esperientziekin** goza ezazu!



Kontsultatu  
gure agenda  
hemen



Madariaga Dorretxea  
San Bartolome, 35  
48350 Busturia (Bizkaia)  
Tlf: 94 687 04 02  
[www.ekoetxea.eus](http://www.ekoetxea.eus)  
[info.urdaibai@ekoetxea.eus](mailto:info.urdaibai@ekoetxea.eus)



**ekoetxea**  
Urdaibai



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, TRANSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD



# Mutriku



Atxukale

tsasoari begira dago Txuma Murugarren Urrutia musikariaren Mutrikuko toki kutxuna. Atxukale da leku berezi hori, portua bistaraten duen talaia.

Badira hamar urte errenteriarra Euskal Herriko hainbat herritan bizi ostean familiarekin Mutrikun ezarri zena, seme-alabak euskal hiztunen artean hazteko borondatez. «Eremu erdaldunen batean biziko bagina, pentsatuko lukete euskara geure harrikada dela! [kar, kar, kar]. Hori gerta ez zedin, leku euskaldun batean bizi nahi genuen, eta horrelaxe erabaki genuen Mutrikura etortzea. Gure helbururako leku on bat zela ikusi genuen, eta bertan erroztzea erabaki genuen, era natural batean».

## Atxukale

Mutrikuko leku bat baino gehiago ditu gustuko musikariak, baina «bat aipatzekotan» Atxukale lehenetsi du. «Etxeen azpiko tunel baten modukoa da, eta hortik ateratzen zarenean, portu guztia bistan daukazu. Oso ikuspegi zoragarria da: han behean ikusten duzun handitasunarekin liluratuta geratzen zara», onartu du.

Jende askoren igarobidea da Atxukale. Beretzat ere bai. —«Mutriku herri txikia da, eta sarri pasatzen naiz handik», dio—. Eta gelditu eta parekoari begiratu zergo, askorako ematen duena, «adibidez,



**Txuma  
Murugarren Urrutia**  
(Musikaria)

**«Atxukaletik  
ikusten duzun  
handitasunarekin  
liluratuta geratzen zara»**

hausnartzeko edo burua argitzeko». Ez horrenbeste konposatzeko. «Ez naiz asko inspiratzen paisaetan. Ez ditut horretarako baliatzen. Ez, behintzat, kontzienteki, nahiz eta beharbada eraginaren bat edukiko duten».




**GEOPARKEA**

**TURISMO BULEGOA:**  
Txurruka Plaza, z/g • 943-60 33 78  
turismo@mutriku.net  
[www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus)

## BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



 Zuzeneko salmentaren udazkeneko ordutegia:  
Asteleheneretik-ostiralera: 9:00-15:00

 Online salmenta: [www.tiendayurrita.com](http://www.tiendayurrita.com)

sarean edota dendan erosteagatik

**%20ko deskontua**

Zuzeneko salmentan: 50€ tik gorako erosketetan, azaroan erabilgarri  
Online salmentan: 50€ tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #YURRITA20

 (+34) 627 38 46 45

 [pedidos@yurritagroup.com](mailto:pedidos@yurritagroup.com)

 Casa Mauleon Etxea





## Arbe Hotela

### ZERBITZUAK

- Kafetegia
- Doako aparkalekua
- Harrera 24 ordutan
- Hatz-marka digitala geletan sartzeko
- Wifia
- Satellite bidezko telebista
- Ibilbide kardiobaskularrak
- Km0 dendatxo
- Spa (bi etzaulki termiko)

## Arbe Hotela, itsasoa zure gelan

**2**015ean Euskal Turismo Saria eskuratu zuen Mutriku eta Deba arteko gainean kokatuta dagoen Arbe Hotela. Izan ere, kokapen bikaina ez ezik, hotelaren beraren egitura eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea ere saritzekoak dira. Hotel familiarra da: gertuko tratua eta naturarekiko maitasuna dira Arberen markak.

Eraikin abangoardistako 11 logelak daude diseinatuta Kantauri itsasoarekin bat eginenez. Bisitariaren begirada itsasoaren ortzimuga zabalean dago, egunez zein gauez ikuspegi liluragarriaz gozatzeko. Logeletako bat aniztasun funtzionala dutenentzako prestatuta dago. Igerilekua ere badago Arben, eta hor ere sentsazioa berbera da: Kantaurirekin fusioatzen da uretan zaudenean.

Naturarekin bat eginda dago Arbe, paisaian ez ezik, baita bere irizpideetan ere. Izan ere, energia geotermikoa erabiltzen du, neguan zein udan eraikin osoa klimatizatzen. Inguruko belardiak eta baraztea ureztatzeko, berriz, euri ura erabiltzen dute. Era berean, bertako labean egin-dako gozo ekologikoak, zuku naturalak eta jogurtak eskaintzen dituzte gosarietan. Arben hurbileko produktuak erabiltzen dituzte ahal den guztian, eta dendatxo bat ere badago, inguruan ekoiztiko eskaintzarekin. Garbiketako produktuak aukeratzekoan ere, naturarekiko errespetua izaten da irizpidea.

Erlaxatzeko eta aktibatzen, bietarako aukerak eskaintzen dituzte. Erlaxatzeko bidean, bakarka edo bikoteka, ordubeteko masajearen ondoren,



sauna eta etzaulki termikoetan etzan eta la-saitasuna sakon arnastu ahal izango duzu. Aktibatzen, berriz, ibilbide kardiobaskularren eskaintza duzu.

Asteburua edo oporrak igarotzeko leku oso aproposa izateaz gain, enpresako zein taldeko bilerak egiteko gela berezia ere eskaintzen du Arbe: talde lana bakean egiteko aukera bikaina, *catering* zerbitzua-rekin.



### Naturaren parte

Arbek begi bistan ditu Zumaia, Deba eta Mutriku. Era horretara, Euskal Kostaldeko Geoparkea bustitzen duen uren artean nabigatzeko aukera aparta dago. Bisita gidatuan Flysch beltza, grisa eta gorriaren nondik norakoak azaltzen dira. Horrez gain, Olatz Karst ezagutzeko aukera dago, kareharriz osaturiko paisaia, baita Debako marismak ikusi eta bertako biosferaren berri edukitzeko ere.



### Geoparkean gaude

Euskal kostaldeko Geoparkean gaude, Mutriku eta Deba artean dagoen Arbe badian. Kantauri itsasoko urek inguratzen eta laztantzen gaituzte, eta txoko txikienean ere kresalaren usain gazi- gozoa nabarmentzen da.

### ARBE HOTELA



Laranga Auzoa, 5, Mutriku  
943-60 47 49  
[info@hotelarbe.com](mailto:info@hotelarbe.com)  
[www.hotelarbe.com](http://www.hotelarbe.com)  
**Webcam:**  
<http://194.30.115.154:8081>

# Ondarroa



**Leire  
Bilbao  
Barruetabeña**  
[Idazlea]

«Ipitxikaletik jaitea denboran atzea egitea zen, lehenako Ondarroa irudikatzea»

**E**z dakit bakarrik ondarrutarrok horrela deitzen diegun. Eta izena nondik etor daitekeen ere, arrastorik ez». Ipitxikaleri buruz ari da Leire Bilbao Barruetabeña; idazlearentzat, esanguraz beteriko mailadia eta Ondarroako toki kuxun.


Beti bizi izan da Kamiñalden, Durango bizitoki hartu aurretik. «Handik, bi aukera zenezkan: edo Kale Handiko kale kurbatu horretan eta izaren eta garbitutako arropen azpitik beste denbora batean murgildu edo Ipitxikaletik jaitsi. Eta une horretan, irudimenak ni nintzen ume hori beste denbora batean sartzen zuen. Urteak atzera egitea modura zen, batez ere konpondu gabe zeuden eskaileren bidez», gogorarazi du.

Harrizko egitura zahar eta hondatua zen orduan pasabidea —gaur egun ez bezala—. Estua ere bai —oraingoaren berdintsu—. «Bateren bategaz gurututzen bazinen, hortxe kateatuta geratzen zinen, eta horrek elkarrizketa bat zekarren zure herritarrekin», dio.

## Likona dorrearen alboan

Likona Erdi Aroko dorrea alboan dauka igarobi-deak, ustez Loiolako San Ignazioren ama Loiolako Maria Sanchezen jaioleku. Bilbaoren irudimena dantzan jartzen zuen inguru guztiak. «Ia ia ez-denbora batean murgiltzea bezala zen. Nahiz eta beharbada eskailerei erreparatuz gero paisaia-irudia hain ederra izan ez, paisaia emozionala bai; eta horren barruan, denboran atzera bidaiatzea eta irudikatzea Ondarroa zelakoa izango zen urte batzuk lehenago».

## Ipitxikale



HITZA



## ONDARROAKO UDALA



TURISMO BULEGOA - 94-683 19 51  
Erribera, 9 (Kofradia Zaharra)  
turismobulegoa@ondarroa.eus  
• [www.ondarroa.eus](http://www.ondarroa.eus)  
• [www.udalbarriak.eus](http://www.udalbarriak.eus)

# Berriatua



Sagarrondoa

Maren Basterretxea Iribar

**E**txeko sagarrondoa gustatzen zaio gehien Maren Basterretxea Iribar artistari, erreka ondolan, sinbolizatzen duenagatik. «Herrian badira itsasoaren handitasunari begiratzeko lekuak, ur miragarriko putzuak, jauregi margotuak eta bestelako txoko ederrak. Baina nik sagarrondo baten nagoenean sentitzen dut neure barrua bakean eta herria gertuen», adierazi du.

Berriatua sagarrari lotutako herria izan da, eta kultura aberatsa eraiki da haren inguruan. Horren erakusle, antzina Antxubixe dorreak sagarrari zukua ateratzeko zeukan dolare erraldoia; edo oraintsuagoko sagardo fabrikak.

## Erritua bailtzan

Errege bidean daude etxeko sagarrondook, Ondarroarantz. Txikitari sagarraren inausketarako, bilketarako, zein sagardo egiteko tarteetan familia biltzen zen, eta lanen ostean bazkari beroa elkarrengaz partekatu. «Erritu legez bizi nuen. Gaur, momentu haietara lotu nahian hartzen ditut txotxongiloak eskuan, eta ematen diet bizia, uneok berpiztuz ilusio bera piztu nahirik ikusleengan».

Erabateko gozamenaren hartzen du hango sagar bat jaso, kamisetan igurtzi eta haginka egiten diotenean, sagarrak bereizteko jasotako jakinduria gorde ez izanaren penatan, ezagutza kate hori urte gutxi-



**Maren Basterretxea Iribar**  
[Artista]

**«Sagarrez, jakinduriaz eta kulturaz blaitutako herria da geurea ere»**

tan eten egin delako. «Berritxu aldera zatozenetan, sagarrondo bat bilatu eta egin kosk historiari. Gogoratu begi bistan dagoena baino gehiago dagoela bazterretan. Sagarrez, jakinduriaz eta kulturaz blaitutako herria dela geurea».



**BERRIATUA  
ELIZATEKO  
UDALA**

Herriko plaza, 1  
94-613 70 30  
Faxa: 94-613 70 27  
udala@berriatua.org  
www.berriatua.org

# AZOKA

## Berriatua

### 2024KO AZAROAK 23

10:00etatik 14:00etara



12:30 KALEJIRA trikitilariekin.  
Arratsaldean, ZESTA PARTIDUAK.  
FINALAK

Elikagaiak  
Artisauak  
Animaliak

ANTOLATZAILEAK



BERRIATUKO UDALA



ZESTA ESKOLA

LAGUNTZAILEAK:



LEA ARTIBAI  
LANDA GARAPENA



Hamen  
Bertokoa

# Markina-Xemein



Hitza

**N**iretzat harri horiek zerbait berezia daukate». Arretxinagako harriei buruz ari da. Horixe du Ander Lipus aktore eta antzerkigileak Markina-Xemeingo toki gustukoena. Ahal duen guztietan publizitatzen du, gainera. Horrela, ofizioko jendea herrira joaten zaionean, hara bideratzen ditu.

Xemein eta Markina abizenak dauzka Lipusek, hurruekera horretan, 9 eta 10.-ak, hain justu. Eta uste du xemeindarra dela bera, bere auzoa, Erdotza, historikoki hangoa delako. Hargatik dio: «Ez daukat inongo obsesiorik kontu horregaz».

Nolanahi ere, onartzen du bereziki liluratzen dutela Arretxinagako inguruek, eta zehazki harriok. «Askotan pentsatu izan dut hormak bota egingo nituzkeela, eta harriak bistan utzi; alde batetik, ikusgarriago egiteko, eta bestetik, eguzkia jaso dezaten. Baina, beno, badauka bere magia ere, ze inork ez du espero baseliza baten barruan hiru harri puska ikustea», onartzen du.

## Itsasoaren lehengo mugen arrasto

Zientzialariek diotenez, itsasoaren lehengo mugen arrasto dira harriok; eta inguratzen dituen baseliza, kristautasunaren eraginaren erakusle. «Nik pentsatzen dut horren aurretik ere leku sakratua izango zela».



**Ander Lipus**  
[Artista]

**«Hormak bota egingo nituzke, eta harriak bistan utzi»**

Kondairak dio harriak ukitu barik hiru bider pasatzen denak bikotea aurkitzen duela. Berak ere parte hartu izan du jolas horretan. Egingarria ote? «Daukazun lodieraren arabera! Txantxak albo batera, nik uste dut egin ahal dela».



**MARKINA-XEMEINGO UDALA**



Goikoportala, 3 • 94-616 74 54

WhatsApp: 688 84 49 95

udala@markina-xemein.eus

www.markina-xemein.eus

www.markinaxemeinturismoa.eus



**ETXEBARRIKO  
UDALA**

- Peñanekua Plaza, 1
- 94-616 64 32
- [www.etxebarría.biz](http://www.etxebarría.biz)

# Urko ibaiaren ertzeari... Etxebarria!



**ANTSOTEGI**

HOTELA | JATETXEA

Antsotegi Errota  
Altzaa auzoa, 15  
94-616 91 00  
[antsotegi.com](http://antsotegi.com)



**IRY BIDE  
TABERNA**

Erribera, 3  
94-616 65 50



**Olaia**  
jatetxea

Altzibar auzoa  
94-616 63 94



**OTSOLO**  
taberna

Erbera, 10  
94-616 96 90



**TXOMIN**  
PENTSIOA

Erbera, 12  
94-616 82 22



# Etxebarria



Antsotegi Hotela

Antsotegi Hotela

**A**ntsotegiko burdinolaz maitemindurik eta balioan jarrita, orain 21 urte Emilio Hernando eta Kata Etxebarriak Hotela ireki zuten. Semeak ametsean batuta, proiektuaren bilakaeraren protagonista izan dira.

Antsotegiren xarma zaindu eta burdinolaren historia bezeroei transmititzegaz bat, inguruon aberastasun naturalean jarri dute arreta urte hauean. Izan ere, Hernando-Etxebarria sendiaren bizi-penak beti egon izan dira mendiagaz lotuta, eta gurasoengandik jasotako pasio hori ogibide bihurtu dute semeek hotelaren baitan. Era horretara, egun, ostatu eta jatetxe zerbitzuaz gain —0 kilometro filosofiagaz bat eginda, eta gustu oro eta euskal gastronomia ardatz hartuta, besteak beste, eguneko menua eta karta opatzen dituzte—, eskaintza zabalak dute —Bizkaian hotel bakarra da turismo aktiboko enpresa daukana: Leaktibai — esaterako, espeleologia, puenting, eskalada, uretako jarduerak eta udalekuak. Horrenbestez, eskualde osoa ezagutzeko aukera daukate Antsotegiko bezeroek.

## Egindako lanaren fruitu

Hernando aurrera begira jarri da, orain arteko ibilbideari begirik kendu gabe. «Nortzuk garen beti go-goan hartuta, oso harro gaude proiektuarekin; oso momentu onean gaude, eta ondo kokatuta; hori



**Gontzal  
Hernando  
Etxebarria**  
(Antsotegi Hotela)

**«Ez gara tontorrera heldu, eta ostean jaitsi egin behar gara, baina bidea topatu dugu»**

bai: lanaren fruitu da. Oraindik ez dugu beharra amaitu, ez gara tontorrera heldu, eta ostean jaitsi egin behar da, ze mendia etxean amaitzen da; baina bidea topatu dugu».



**ETXEBARRIKO  
UDALA**

Peñanekua plaza, 1  
94-616 64 32  
[www.etxebarria.biz](http://www.etxebarria.biz)



# ZIORTZA - BOLIBAR


*askatzailearen sustraietatik*

[www.ziortza-bolibar.eus](http://www.ziortza-bolibar.eus)  
[udala@ziortza-bolibar.eus](mailto:udala@ziortza-bolibar.eus)

Udala:  
94-616 57 27  
Simón Bolívar museoa:  
94-616 41 14



# Munitibar



Juan Abasolo Isasa

Lea erreka

**M**unitibartik Lea erreka gustatzen zaio gehien Juan Abasolo Isasa argentinarri. «Magia dauka», dio. Deigarria egiten zitzaion hara bizitzera joan aurretik ere, eta behin han, leku gustukoena du.

Argentinatik datorkio errekarako zaletasuna. «Jaioterrian errekan kilometro batzuk egindakoa naiz, asko gustatzen zaidalako, eta Munitibarren topatu dut hori», adierazi du.

## Semeein batera

30 urte daramatza Euskal Herrian bizitzen, horietatik ia erdia Munitibarren. «Nire bizimodua Lekeition eta inguru horretan neukan, eta Etxebideko promozio baten bidez etxebizitza zozketa batean sartu eta bertan bizitzen amaitu nuen». Urteak joan dira ordutik, eta bertokotu da, nahiz bereizketa egiten duen: «Munitibarkoa naiz, baina munitibartarra ez naiz. Eta munitibartar bi egin ditut». Semeei buruz ari da. Haiekin lotzen du, hain zuzen, erreka; neurri handi batean, bederen. «Eurekin hasi nintzen hara joaten; adinean aurrera joan ahala, toki desberdinetara». Eta behin haren bazterretan, toki bat baino gehiago dira aipagarri, haren ustez. «Barkalontzi, adibidez, oso polita da», esan du.

Susmoa du herriko guztiek ez daukatela errekarakin horren harreman esturik. «Gertatu izan zait



Juan  
Abasolo Isasa  
[Irakaslea]

«Erreka  
ezagutzen duenari,  
gustatu egiten zaio»

gure umeen sasoi bereko beste munitibartar batzuek ez ezagutzea». Horregatik, esperientzia horretan murgiltzera gonbidatzen ditu denak. «Nahikoa toki ezezaguna da, eta ezagutzen duenari gustatu egiten zaio», baieztatu du.



Herriko plaza, 6  
94-616 40 07  
[www.munitibar.org](http://www.munitibar.org)  
[alkatetza@munitibar.org](mailto:alkatetza@munitibar.org)  
[idazkaritza@munitibar.org](mailto:idazkaritza@munitibar.org)

## Nareamendi



Jesus Mari Kareaga Urizar



**Jesus Mari  
Kareaga Urizar**  
(Naturzalea)

## «Berton azpian jaio nintzen: gure baserria ordubetera-edo dago»

**N**area auzokoa da. Loperena baserrikoa. Eta hangoa du tokirik gustukoena Jesus Maria Kareaga Urizar *Lopezek*: Nareamendi.

40 urterekin jaitsi zen Aulestira, baina jaiotetxea ahaztu gabe. «Gure gazte denboran ez zegoen patienterik, mugikorrik, gameboyrik eta horrelakorik. Eta gu joaten ginen udaberrian txori habietan edo txirtxirioak batzen edo mendian egin zitekeen edozertara», gogorarazi du haur sasoiko Nareamendirako bueltekin akordatzean.

Teinkada eduki eta, erretiroa hartu zuenetik hu-

tsik egin gabe joan ohi da hara eguraldiak laguntzen duen guztietan, Iluntzarrera bezainbeste. «Badaude beste toki atsegin batzuk, zelan ez: parkea, Santa Eufemiko zelaia,... baina niretzat berezia beti izan da huraxe. Jakina, berton azpian jaio ere egin ginen, gure baseritik ordubetera-edo dago, eta umetatik harakoxe ohitura eduki izan dut», argitu du.

### Bista ederrak

Bateren bat zalantzan egonez gero, tontorretik ikusten dena deskribatu du. «Lepora igoz gero bista ederrak daude: Urdaibai, garbi-garbi dagoenean iparraldeko kosta ere bai pixkatxo bat, baita barrualdeko mendiak ere (Gorbea ingurua). Ikuspegi ederra dago eguraldi ederra dagoenean». Aldarria ere egin du: gunea ondo zaintzea. «Lehengo bidezidorrak abandonatuta daude. Baserrietan ere ez dago burdirik. Eta pena da horiek galdu izana. Bide zaharrak mantendu egin beharko lirateke», dio.



**AULESTIKO  
UDALA**

Donibane plaza, 1  
94-627 90 06  
idazkaria@aulesti.eus  
www.aulesti.eus



## Udaletxeko eskailerak

Hitza

**E**sanahiz beterik daude udaletxeko eskailerak Itxaro Mentxaka Bengoetxearentzat. «Bizi erdia bertan pasa dut. Guk taberna geneukan hemen bertan, eskaileren ondoan: Bar Moderno. Haren goian bizi ginen, eta beti jotzen genuen eskaileretara, bai etxetik, bai tabernatik», dio.

Badira hogeitau urte eta gehiago taberna zarratu zutela, baina eskailerek etxekoen bilgune izaten jarraitzen dute. «Izan ere, hemen herriko tenperatura hartzen duzu. Hemen ikusten duzu jendea gora eta behera; alde batera udaletxea daukazu, bestera eliza, aurrean plaza,... bertotik pasatzen da bizitza guztia. Bidegurutze bat da». Hortaz, etxeko guztientzat dira berezi eskaileroak; denentzat dira bazeko puntua. «Askok botatzen digute: 'hau zer da: zeuen etxearen luzapena?' Ba, bai; hala da», esan du. Eta etxean bertan dagoenean ere haien inguruan sortzen den bizitasunari behaka egoten da sarri. «Balkoira irten eta ohartu gabe ordu erdi egon naiteke jendeari begira. Zortea daukagu etxetik ikuspegi ederra daukagulako».

### Hondartzatik bueltan, aulki eta guzti

Dauden tokian egonik, beste hainbatek ere orduak ematen dituzte mailadian. Gazte ugari bertan bazten dira, eta beste zenbaitzuek geldialdia egiten dute hondartzatik bueltan, «sarri aulki eta guzti!».



**Itxaro  
Mentxaka  
Bengoetxea**  
*[Mezzo-sopranoa]*

**«Eskaileretan  
herriko 'tenperatura'  
hartzen duzu»**

Lanagatik kanpotik dabilenean, faltan botatzen du herria, eta eskailera inguruan bitzako momentuak ere bai. Edozelan ere, bueltan datorrenean, badaki leku berean bilatuko dituela, non senideak elkartzen diren eta herriko tenperatura hartzen.

 **lekeitioturismo.eus**

**TURISMO BULEGOA**  
Santa Elena Etorbidea, 2 • 94-684 40 17  
turismo@lekeitio.eus

## Otoioko bankuak



Naia Laka Arrizubieta



**Naia  
Laka Arrizubieta**  
(Ikus-entzunezkoak)

**«Ihesbidea da niretzat lanean edo beste kontu batzuetan eten bat egin nahi dudanerako»**

**O**toira mendi ostera egin eta hango eserlekuetan jesartzea. Ez dago hori baino plan hoberik Ispasterren Naia Laka Arrizubietarentzat. Huraxe da herriko bere toki kutzuna.

Ikus-entzunezkoen zuzendariak dio erlaxatzeko toki aproposa dela. «Ihesbidea da niretzat lanean edo beste kontu batzuetan eten bat egin nahi dudanerako». Eta horretarako arrazoiak eman ditu. «Bertatik, kosta guztia ikusten da, hasi Ogella hondartzatik eta Elantxobe eta Ogellaraino, baita haratago ere, Busturialderantz», esan du. Horrenbestez,

bere sekretua partekatu du. «Han jarri eta begira geratzea gustatzen zait».

### Ilunabar ikusgarriak

Tontorra 399 metrora egonik, ariketarako gonbitea ere bada txangoa. Hori bai: eguzkia sartzeko momentuan joatea aholkatu du. Izan ere, ilunabarrak ikusteko toki ezin hobea dira Otoioko bankuak, eta haien zale izanik, kamera eta guzti joan ohi da, sarri, zeruan une jakin horretan barreiatutako koloreak klik eginaz betiketazera. «Aspaldian asti barik ibili naiz, baina berandu barik igoko naiz», ziurtatu du.

Azkenaldian, txokoak ez du publizitate askorik behar izan. «Lehen ezkutuago geratzen zen, eta horregatik ez zen ezaguna herritik kanpora. Gaur egun, ostera, sareen bidez oihartzuna emanda, gero eta kanpotar gehiago etortzen dira. Hain da leku berezia eta polita ze, jende asko erakarri baitu».



### ISPASTERKO UDALA

Elelalde auzoa, 9-1. solairua  
**94-684 40 25/ 94-684 29 99**  
Faxa: 94-624 34 70  
udala@ispaster.eus  
[www.ispaster.eus](http://www.ispaster.eus)

## Karraspio hondartza



Hitza

Lekeitiotik Mendexara joan zen bizitzera Iñigito Txapelpunk orain bost urte inguru. Hasierako zalantzak zalantza, laster egin zen bertara, eta egun etxean sentitzen da.

«Maiteminduta nago Mendexagaz. Lekeitiogaz ere bai, eh?», argitzen du. Sustraez ahaztu gabe, auzoko herrian errotu da. «Lekuz aldatzen zarenean, beti egoten zara adi, zer topako, eta ze kontua eta lehenengo egunetik bertatik oso ondo konektatu genuen jendeagaz», adierazi du.

### Gitarra, falta barik

Herri txikietan aurkitu izan ohi du arrimua: lehen Lekeition eta orain Mendexan. Eta alderaketa egin du: «Lehen Lekeitiotik Bilbora joan eta galdu egiten nintzen, eta Lekeition topatzen nuen babesba, herri baten lilura. Eta orain, Mendexan bizirik, Lekeitio egiten zait handi!».

Nolanahi ere, Lekeitiora begira jarri da leku gustukoena aukeratzean, Karraspio hondartza baitu gogokoen, hari pega-pega eginda. «Udan hondartzara noanean beti ahazten zait zer edo zer; gitarra sekula ere ez, ordea! Eta hango lasaitasunak pilo bat laguntzen dit, bai sortzen, bai ondo egoten. Magia hutsa». Itsasoa, olatuen zarata eta tarteka jendeagaz hori dena partekatzea sekulakoa da berretzat.



Iñigito  
Txapelpunk  
[Musikaria]

«Karraspiok pilo bat laguntzen dit: bai sortzen, bai ondo egoten»

Karraspion modura, herrigunean ere egon ohi da gozo, Mendexako lagunekin. Hurrengoan, zelaian paseatzen; bakarrik eta aldi berean naturaren erdian. Eta dio: «Mendexak bizitza aldatu dit asko. Lekeition oso ondo nago, baina Mendexan ere bai».



**MENDEXAKO  
UDALA**

Herriko plaza, z/g  
94-684 21 06/673 09 85 97

Faxa: 94-684 02 11

idazkaritza.mendexa@bizkaia.org  
[www.mendexa.net](http://www.mendexa.net)

lea



ingenio & natura

ibilbidea

GR 38 ARDO eta  
ARKAINAREN IBILBIDEA



[www.leaibarra.eus](http://www.leaibarra.eus)



Elexalde, 1 - 48289 GIZABURUAGA | tf.: 94-684 29 82 | [leaibarra@bizkaia.org](mailto:leaibarra@bizkaia.org)  
Administrazioa: 94-684 29 82 • Ongizatea: 94-684 29 63 • Garapena: 94-684 44 23



MUNITIBAR  
ARBATZEGI  
GERRIKAITZ  
UDALA



AULESTIKO  
UDALA



GIZABURUAGAKO  
UDALA



AMOROTOKO  
UDALA



MENDEXAKO  
UDALA